



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

EUSKARALDIA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

GAIA: Musika eta Dantza Eskolak 2025eko "Euskaraldian"

Musika eta Dantza Eskolak **maiatzaren 15etik 25era** ospatu den "Euskaraldiaren" 4. edizioan erakunde gisa parte hartu du, **Musika eta Dantza Eskola** ohikoa den **euskaraz lasai egiteko gunea** izaten jarraituz.



Euskaraldia ekimenean parte hartzeak ez digu aldaketarik ekarri Eskolan; izan ere, Eskolaren berezko hizkuntza Euskara da, bai eskola-hizkuntza, bai komunikazio-hizkuntza; bai ohiko irakaskuntza-ikaskuntza praktikan, bai eskolatik kanpo. Beraz, orain egiten dugunari eutsiko diogu eta Eskolara datozenak euskaraz egitera gonbidatuko ditugu.

Musika eta Dantza Eskola arigune izateak badu abantaila. Bertako parte hartzaileok Euskaralдитik bidalitako **estekaren bidez berretsi** dugu aurten ere ariketa horretan **parte hartzea**. Beraz, bi rol hauen artean aukeratzea izan dugu:



"euskaraz ulertzen dutenei euskaraz bakarrik egitea 15 egun horietan. Ezezagunei ere euskaraz egitea 1. hitza, ulertzen duten ala ez ikusi arte; euskara ulertzen badute, euskaraz jarraitzea nahiz eta batzuetan beraiek gazteleraz erantzun eta euskarari eustea kostatuko zaigun".



"euskara ulertzen dugulako, euskaraz hitz egiteko gauza direnei, guri euskaraz hitz egiteko eskatzea, eta euskaraz noiz eta norekin egin momentuan erabakitzea".

Rolak ez du gaitasunarekin zerikusirik, jokaerarekin baino.

Beraz:

- ❖ Ahal dugun guztietan euskara erabiltzeko prest? → **AHO BIZI!**
- ❖ Dakienari guri euskaraz hitz egiteko aukera eman diogu? → **BELARRIPREST!**

Euskaraldiaren aurtengo edizioan parte hartuz, Eskolan beste helburu bat bete dugu: Eskolan euskararen erabilera areagotzea.

Azkoitia, 2025eko maiatzaren 26an